



eman ta zabal zazu  
Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



# EMAKUMEA ETA DANTZA XVIII-XIX. MENDEETAN ETA GAUR EGUN

---

**Asier Otxandorena Dorregarai**

**GRADUA:** Euskal Ikasketak 4.maila

**TUTOREA:** Patxi Salaberri

## LABURPENA

Gradu amaierako lan honetan dantzaren ikuspuntuaren inguruan murgildu naiz. Horretarako, XVIII-XIX mende bitarteko autoreak hartu eta haien obra batzuk aztertu ditut, zeinetan dantzari eta emakumearek buruz hitz egiten duten. Dantzak ez dira ohiko gaia izan euskal literaturaren munduan eta historian, baina interesgarriak iruditu zaizkit haien inguruko iritzi eta iruzkinak. Izan ere, guzti horren atzean irudi eta kritika-arrazoi bakarra topatu dut: emakumearena.

Aztergai ditudan autore gehienak dantzen aurka egon ziren haien idazle garaietan, baina dantza mota bakar batekin zuten arazorik handiena eta gizon-emakume arteko dantza zen honako hau. Gizonen artekoak edota emakumeen artekoak ongi ikusiak ziren, baina jai giroan ez zen oso ohikoa dantza hauek bere horretan geratzea, plazan gero eta gehiagotan nahasten baitziren gizon eta emakumeak elkarren artean. Hala ere, dantza nahasi hauek bi espazio ezberdinetan ematen ziren; plazan jendearen aurrean eta etxe edo toki pribatuetan. Mendiburu, Frai Bartolome eta beste autore askorentzat bekatariak ziren dantza hauek burutzen zituzten dantzari eta herritarrak. Hau dela eta, dantza guztietan bekatuak arriskua ikusten zuten eta nahiago zuten hauek errotik debekatu, dantzaren eszenatokia edozein zelarik ere. Mendiburu bezalako misiolariak herriz herri predikatzen zuten dantzak debekatzeko saioak eginez, baina aurkako bandoan dagoen idazlerik ere badugu eta hauetako bat Larramendi da, zeinak hein handi batean dantzak onartzen zituen. Autore honek gogor kritikatu zituen Mendibururen hitzak. Larramendiren ustetan plaza agirikoak alkate edo kargudun baten aurrean bete zitezkeen beti ere elizkizunak errespetatzen ziren bitartean. Dena den, alderdi batzuetan amore eman behar izan zuen dantzak onartuak izan zitezkeen eta ezarri zuten baldintzetako bat bi dantzarien artean zapia jartzearena zen, elkarri eskua eman ez zitezaioten. Etxe pribatuetako dantzak, aldiz, ez zituen bertakotzat jotzen eta haien aurka azaldu zen. Iztueta Larramendiren zaku bertsuan sartu dezakegu Iztueta dantza irakaslea. Azken honekin Frai Bartolome de Santa Teresa da konparagarria, biak elkarren aurka aritu ez arren, garai bertsukoak zirelako eta alderdi batzuetan Mendibururen antzekoa zelako gure karmeldarra. Biak ala biak plazatik kanpo egiten ziren dantzen aurka zeuden, baina karmeldarraren arrazoia erlijiosoa zen eta Iztuetarena politikoa. Lau hauetaz gain, garai bertsukoak ziren beste autore batzuk ere dantzen inguruan jardun zuten obraren batean; Juan Antonio eta Juan Jose Mogel osaba ilobak, eta Juan Ignazio Gerriko dira horietariko batzuk.

Hurrengo mendean, XIX. mendean hain zuzen ere, dantzak arautzeko saioak gutxituz eta indarra galduz joan ziren, arau batzuk proposatzen eta onartzen jarraitzen bazuten ere. XX. mende hasierako Azkueren *Ardi Galdua* (1918) lana dugu azken misiolarien adibide gisa. Garai hartan, eusko abertzaletasunak dantzak tradizioaren osagarritzat gehitu zituen eta erlijioaren zapalkuntza jasan behar izan zutenak Euskal Herrikoak ez ziren dantzak izan ziren. 1960-1970 urte bitartean Euskal Herrian gizarte eta kultur aldaketa nabarmena eman zen tartean Elizak indar pixka bat galdu zuelarik. Horri esker, emakumearekiko kritika txarrak apalduz joan ziren, baina ez ziren guztiz deuseztatu, tradizioa eta ohiturak bizirik mantentzeko lanean zebiltzan herritarrak bere horretan jarraitzen zutelako. Hau dela medio, dantza eta jai giroko emankizunetan parte hartzeko oztopo handiak izaten jarraitu du emakumeak gaur egun arte. Horren adibide ditugu Maskaradak eta mutildantzak. Herritarrak garai bateko ideiak bere horretan eusten zenbiltzan eta Maskaradetan parte hartu edota mutildantzetan dantzatu nahi zuen emakumeari ez zioten bide erraza jartzen. Gaur egun ere, mutildantzetan gatazka hau bizirik dirau. Errioxan, aldiz, beharrarengatik hasi ziren emakumezkoak dantza tradizionalak dantzatzen; izan ere, mutil gutxi zeuden dantza guztiak burutzeko.

Azkenik, ondorioetan aipatu ahal da emakumeek oraindik muga asko dituztela jai edota erritualetan parte hartzeko, eta plazan sartzea lortzen dutenean hierarkia moduko bat ematen dela. Objektu gisa jardun du urteetan zehar eta rol hori hartu du emakumea izateagatik. Jantzien aldetik ere emakumeekiko bazterkeria egon zen, ezagutzen zen jantzi bakarra gizonezkoentzat hartu zutelako, baina emakumeek haien tokia irabaztea lortu zuten herrietan jantziak eraldatzen joan ziren. Tradizio eta ohitura zaharrak apurtzea eta garai berrietara egokitzea da gizon eta emakume askoren nahia; poliki-poliki lortzen ari badira ere, oraindik lan asko geratzen da.

## AURKIBIDEA

1. Sarrera .....	1
2. Dantzen auzia: Larramendi VS. Mendiburu.....	2
3. Dantzak bekatua lagun.....	7
3.1. Jose Antonio Mogel .....	7
3.2. Juan Ignazio Gerriko .....	8
4. Mendibururen ahotsa XIX.mendean .....	9
4.1. Juan Jose Mogel .....	9
4.2. Frai Bartolome de Santa Teresa .....	10
5. Dantzak bai, baina plazan .....	13
6. Aldaketa garaia .....	16
7. Gaurko egunera hurbilduz .....	19
7.1. Maskarada .....	19
7.2. Mutildantzak .....	21
7.3. Emakumezko dantzariak Errioxan .....	22
8. Ondorioa .....	23
9. Bibliografia .....	26

## 1.- SARRERA

Lan honetan XVIII-XIX mende bitarteko autore batzuek dantzaren alorrean zuten ikuspegiaren inguruan ariko naiz. XVIII. mendearen aurretik ere emakumea eta dantzari buruz hitz egin duten autoreak egon dira, Axular, adibidez, baina nire abiapuntua Larramendi eta Mendibururen arteko eztabaida izanen da, garai bertsuko bi jarrera guztiz kontrajarriak argi ikusten direlako. Aukeratu ditudan gainontzeko autoreak garai hartatik aurrerakoak dira, elkarren artean nahiko kontrastagarriak iruditu zaizkidalarik. Aztertu beharreko obrak zeintzuk izan daitezkeen identifikatzeko eta dantzak debekatzeko asmoarekin kaleratutako arauak ezagutzeko Joxemiel Bidadorren (2005) lana baliagarria izan zait. Gaur egun ere emakumea eta dantzaren gaia pil-pilean dagoenez, lan honetara Maskaradetako, mutildantzetako eta Errioxako egoerak ekarri ditut, lehenengo biak nahiko polemikoak izan baitziren eta baitira emakumearen presentziagatik. Idazle klasikoen eta gaur egungo adibideen artean eman den trantsizio garaia Bidador (2005) eta Txillardegiri (1984) esker osatu ahal izan dut. Amaitzeko, guzti honetatik atera eta sortu ditudan ondorioak helarazi ditut.

Idazleekin hasi aurretik, esan beharra dago XVIII. mendean dantzak burutzea debekatzen zituzten lege zorrotzak atera zirela agintari zibil eta erlijiosoen eskutik. Lehenengo araua<sup>1</sup> Iruñetik dator 1706ko apirilaren 3an eta bertan, udalak gizon eta emakumeen arteko dantzak debekatzen zituen. Ondotik, Gipuzkoako eta Bizkaiko herri batzuek bide bera jarraitu zuten eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak 1714ko maiatzaren 4an arau hari beste debeku bat ezarri zion<sup>2</sup>: herri agintaririk egon ezean, dantzak eta danbolinteroak ezin zuten bere beharra burutu egunez, gauez, herrian bertan ezta herritik kanpo ere. Gerora, debeku gehiago etorri ziren, apaizak dantza egin zezaten debekatu, mezen ondotiko dantzak eta elizkizunen bitartekoak galaraziz, etab. Dekreturik ezagunena Iruñeko Gaspar Miranda Argaiz apezpikuak 1750ko martxoaren 12an argitaratutakoa da eta dirudienez, ediktu hau idatzi zuenetako bat Mendiburu euskal idazlea dugu. Ez ditu

---

<sup>1</sup>“...que ninguno, ni hombre ni mujer de ningún estado ni condición que sean puedan danzar juntos de día ni de noche en las plazas, calles, campos ni zaguanes, ni otros parajes públicos, pena de dos ducados y diez días de cárcel por cada vez que lo ejecutaren a cada uno a los gaiteros, julares y a otro cualquiera que con instrumentos hicieren son para semejantes danzas. Y se les impone la misma pena los hombres que danzaren el ellas”; “La danza en las fiestas y ceremoniales de Iruña a través de la historia”, *Fronteras y puentes culturales: Danza tradicional e identidad social* (1998) Pamiela, Iruña, 508-509 or.

<sup>2</sup> “Se prohíbe bajo graves penas el uso de tamboriles y bailes con motivo de concursos, Juntas de Cofradía y celebridad de fiestas de Santos, extinguiendo la costumbre hasta ahora, evitando todo exceso en estas materias, procurando la mayor quietud en los pueblos de esta provincia y evitando las ofensas a Dios”; Angiozar, M. (1930) “Decretos de las Juntas Generales de Guipúzcoa”, *Txistulari*, XV

dantzak guztiz debekatzen, baina argi uzten du zeintzuk diren onartuak eta zeintzuk kondenatuak. Lehenengo hauek honela aipatzen ditu:

Ese baile ágil, bello y decoroso, a los sonos del chistu y tamboril, celebrado en la plaza pública, a la sombra augusta del campanario secular, ante los ojos y el cariño de los padres, los viejos y el cura, presididos por la grácil varita del alcalde, rematada con crucecita de plata; ni de esa jota suelta y nerviosa de la fértil Ribera. Esos bailes tradicionales son preciosa reliquia folklórica, recuerdo de abuelos y olor de siglos, bailes que se perpetuan a través del tiempo en tantos pueblos de fuentes puras de la tradición,...(*Boletín Oficial del Obispado de Pamplona*, 1941 : 177, 191)

Besteak, aldiz, Espainia kanpotik zetozela esanez, dantza zikin eta modernotzat jo zituen<sup>3</sup>.

Araba ere ez zen arau hauetaz libratu eta danbolinteroen lana galarazi zuten 1793an. Mendea aurrera joan ahala, dantzen aurkako saioa indarra galduz joan zen, nahiz eta antzeko arauak onartzen eta kaleratzen jarraitzen zen.

Autore askok eta askok ez zituzten dantzak beraien lanetan aipatu, ezta festa giroan ematen ziren ospakizun motak ere. Hala ere, gutxi batzuek haien inguruan jardun zuten haien lanetan, hauek kritikatu edota kritika hauek baliogabetuz. Idazle hauen artean ditugu, hala nola, Iztueta, Frai Bartolome, Mendiburu,...

## 2.- DANTZEN AUZIA: LARRAMENDI VS. MENDIBURU

Literaturaren historian aurretik aipatutako garaira joaten bagara, hau da, XVII. mendera, dantza erdigune zuen auzi potolo samarra suma dezakegu bi idazle handiren artean: Mendiburu eta Larramendi. Bi idazle hauek elkarren aurka aritu ziren, dantzaren gaiaren alorrean oso iritzi kontrajarriak zituztelako. Eztabaida 1764ean Larramendik Mendibururi egin zion zentsurarekin piztu zen.

Manuel Larramendi 1690ean jaio zen idazle andoaindarra dugu. Ikuspegi ireki eta zabala zuen dantzen inguruan eta baliteke kanpoan ikasten eta lanean pasa zituen urteek zerikusia izatea bere pentsatzeko eran. *Diccionario trilingüe* (1745) du lanik ezagunena, baina lan honetarako gehien interesatzen zaiguna 1754ean idatzi, baina 1882an argitaratu zen *Corografía o descripción general de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa* lana da. Liburu hau idaztera bultzatu zuen arrazoietakoa bat bere adiskide zen Murillok haren lanean euskaldunak izendatzeko erabiltzen zuen *vizcaíno* hitza zen. Gipuzkoaren inguruko

---

<sup>3</sup> “Los bailes modernos agarrados, cuyos nombres no queremos ni consignar porque nos parecería manchar los labios (...) Unos han nacido en la carroña moral de Europa y otros en el establo bestial de las tribus más degradadas de la tierra, ninguno en nuestra España, relicario de pureza, arte y galanura”. *Boletín Oficial del Obispado de Pamplona*, 1941 : 177-191

deskribapena luzarazten digu bertako historia eta kulturari buruzko xehetasunak emanez. Liburua 40 kapituluz osaturik dago, prosan gaztelaniaz idatzirik. Deskribapena natura eta gizakia bereiziz ematen digu, lehenengoa oinarrizko elementuetatik (ura, lurra, airea eta sua) abiatu egiten duelarik. Lehenengo honetan kokatzen dira ibaiak, itsasoak, mendiak, meatzategiak, ontziolak etab. Bigarren zatian, gizakiaren deskribapenaren barruan, guri interesgarri suerta dakigukeen dantzen zilegitasunaren inguruko lau kapitulu ditugu; “De las fiestas, juegos entretenimientos y danzas que usan en Guipúzcoa”, “De las danzas ordinarias del tamboril en Guipúzcoa”, “Prosigue la misma materia de las danzas” eta “Conclúyese la materia de las danzas” izeneko kapituluak hain zuzen ere. Haietan, dantzak gogor kritikatzeko zituzten misiolariei arrazoiak eskatzen zizkien.

Dantzari buruz hitz egitean, dantzak bi multzotan banatu zituen: alde batetik, festa guztietan komunak zirenak (giza dantzak, karrika-dantzak, esku-dantzak,...) ditugu eta bestetik, hain komunak ez zirenak (ezpata-dantza, alagai-dantza eta azeri-dantza). Azken hauek Gipuzkoako berezitasunak omen ziren eta soilik bertan dantzatzen ziren; lehena esate baterako, Gaztelan noizbait dantzatu izan zelakoan zegoen autorea, baina obra idatzi zuen garaian Gipuzkoan baino ez zela praktikatzeko esaten zuen. Gainontzeko bi dantzei dagokienez, alagai-dantza Tolosako Donibane egunean kokatu zuen eta azeri-dantza, aldiz, Andoain, Hernani, Urnieta eta Oreretako festa egunetan.

Aipaturiko bigarren kapituluan festa egun normaletan dantzatzen ziren dantza arruntak datoz. Gure gaira hurbilduz, esan beharra dago Larramendik dantza Gipuzkoako ezaugarritzat zuela eta jendea entreteniturik edukitzeko modu ona iruditzen zitzaioela. Izan ere, dantza ez zegoenean, jendea beste eginkizun arriskutsu batzuk jorratzen zituen:

Pero a poco tiempo se les resfrió su fervor y, dejando las danzas, se retiraban, mozos y mozas, a divertirse y a jugar, comer y beber fuera de poblado, sin testigos, y dentro del lugar a zaguanes y otros rincones, de donde resultó el escándalo a terrible de haber habido más niños expuestos en sólo aquel año sin danzas, que en muchos años antes con ellas, y fue preciso relajarles el juramento y que volvieron a sus danzas (Larramendi, 1754: 1969, 240)

Hau dela eta, askotan alkateei eskatzen zitzaie dantzak egiteko agindu zezaten, dantzariak eta ikusleak beste mota batzuetako bekatuetatik urrunarazteko. Hortaz gain, mutilak arin eta forma onean mantentzeko modu ona ere bazen. Dantzak bekatutzat zituzten haiek ere aipatu zituen Larramendik bere obran eta Domingo Agirre apaiza dugu horietariko bat. Larramendik oso argi zuen zein zen dantzen aurka egoteko gainerako autoreek zuten arrazoiak: gizon eta emakumeen arteko dantzetan bekatua zegoen. Arrazoi honen aurka jo zuen, adibideen artean itun berriko pasartetxoak erabiliz. Bertan ez da ia

dantzen inguruko aipamenik egiten eta egiten den bakarra Jesukristok egiten du, baina hauek epaitu gabe. Dantzak ohitura mantentzearen egiten ziren eta ez zegoen dantzak epaitu edota debekatzen zituen legerik. Salomek, Herodíasek alabak, egindako dantza bekatutsua iruditu zitzaiola esan beharra dago, baina Mendibururi, esaterako, ez zitzaion hala iruditu. Adibide horretan apaizen interesak ikusi ditzakegu, hau da, argi dago Mendiburu jesuitak ez zuela Jainkoaren hitza zalantzan jarri nahi eta Itun Berriak dantza hori gaitzesten ez bazuen, berak ezta ere.

Oinarrizko kritiketako bat gizon eta emakumeen kontaktu fisikoa zenez, bi dantzariak elkarri eskua ematea debekatu nahi izan zuten. Aukeretako bat eskuen artean zapia jartzea zen eta Larramendik onartu egin zuen dantzak baimentzeko emaniko baldintza gisa:

La cuarta condición con que apruebo las danzas es que se dance con pañuelos y que no se den las manos hombres y mujeres. Esta condición, aunque no necesaria, conviene para la mayor decencia y recato, y para quitar aprensiones y escrúpulos a cualquier impertinente. (Larramendi, 1754 : 1969 , 263)

Hala ere, Larramendi ez zen hain ezberdina beste idazle eta elizgizonekin konparaturik. Izan ere, gainontzeko autore gehienek bezala, ez zituen gaueko dantzaldi pribatuak onartzen. Bere arrazoa, aldiz, ezberdina zen: plazatik kanpo burutzen ziren dantza pribatuak ez ziren jatorriz bertakoak eta euskaldunak, kanpotik ekarriak baizik. Gipuzkoako toki askotan egiten zituzten arren, ez ziren bertakoak eta ez zituzten bertako dantzen ezaugarriak. Andoaindarrak dantza haiek probokatzailerak eta txarrak zirela defendatzen zuen eta hauek gauzatzen uzten zuten apezek bekatu egiten zutela zioen. Intimitatean gauzatzen ziren dantza hauek alde batera utzita, gainontzeko guztiak onargarriak ziren, baina baldintza batzuk betetzea beharrezkoa zen. Lehenik eta behin, dantza hauek elizkizunen ondotik dantzatu behar ziren, meza eragotzi gabe eta dantzen erruagatik apaizak bere lana atzeratu behar bazuen, bekataritzat hartuko ziratekeen errudunak. Bigarrenik, dantzetan beharrezkoa zen alkatea edo bere izenean zihuan beste norbait egotea. Beren lana zen egon zitezkeen arazoak ekiditea edota funtzioa lotsagabeki eta kristautasun baloreen aurka zapuzten zuen edonor espetxe zigorrarekin zigortzea. Andoaindarraren iritziz, zigorrak edozein kexa eta oihuk baino indar handiagoa zuen eta hauek muturreraino eramane beharra ziren. Baina, zeintzuk ziren zigortutakoak? Lizunkeriatan ibiltzen zirenak. Larramendik honela dakar azalduta:

Los que deben ser castigados por el alcalde son los que dando vueltas, haciendo cabriolas al soslayo y campanetas, no sólo rozan los guardapiés a las mujeres, sino también las descubren algo las piernas. Y no les sirve de excusa que lo han hecho sin querer, pues en caso de duda debe de



zampuzarlos en la cárcel, para que dancen con más reflexión y cuidado y así escarmienten otros. Deben ser también castigados los que dan encontrones estudiados del lado o de espaldas a las mujeres. (Larramendi, 1754 : 1969, 273)

Dantzarietz gain, Larramendik musikariaren posturari buruz ere idatzi zuen. Ezin zuten onartuak ziren dantzez gain beste ezer jo, jarrera txarra eta ikusleen barreak eragin zezakeen oro saihestu behar baitzen. Dantza zuzenean errotik debekatu beharrean, bere ustetan predikatzailiek neurriak hartu beharko zituzketen musikarien aurrean. Nahikoa zatekeen polemika sortu zezakeen oro debekatzeta eta dantza “garbi” eta helburu txarrik gabeko batzuen alde jardutea.

Puntu honen hasieran aipatu dudan bezala, 1764ean Larramendik Mendibururi idatzi zion honek burututako *Christau-Dotrin edo Catecismo luzea* lanaren inguruan: *Censura del Catecismo de Mendiburu en lo relativo a las danzas*. Mendibururen dotrina hau 3 tomoz osaturik zegoen eta argitaratu gabe geratu zen 1767an josulagunak Espainiatik kanporatuak izan zirenean. Ez genuen haren berririk Patxi Altunak *Aita Sebastian Mendibururen Idazlan argitaragabeak* edizio kritikoa kaleratu zuen arte. Biak, Larramendi eta Mendiburu, jesuitak izan arren, dantzen inguruan oso ikuspuntu kontrajarriak zituzten. Horregatik, Larramendiren zentsura puntu bakarrean zentratzen zen: Mendibururen doktrina morala dantzen inguruan. Andoaindarrak oiartzuarraren lanaren inprimaketa baimentzeko prest zegoen dantzen atala kentzeko baldintzarekin.

Beraien arteko eztabaida urte batzuk lehenago hasia zen, Larramendik dantzen aurka zeuden misiolariak kritikatzten baitzituen *Corografia* lanean. Larramendik nahiko jarrera mingarria hartzen zuela esan daiteke, baina Mendibururen lanaren alderdi positiboa markatzen ere bazekien, dantzen inguruko zatia kendurik lan inprimagarria zela esaten baitzuen.

“Que puede imprimirse la obra, dejando lo que trae de las danzas y contra las danzas; pero que no puede imprimirse con ellas. Que imprimiéndose sin eso, será una obra de mucha honra y gloria de Dios, de grande utilidad para enseñanza de los pueblos y para que sepan con algúan extensión, y no de sola memoria, la doctrina cristiana.”(Larramendi, 1764: 1990, 400)

Guzt honen ostean, ondoriozta daiteke Mendibururi ez zitzaioala asko gustatu Larramendi bere zentsore izatea.

1708an Oiartzunen sortu zen Sebastian Manuel Mendiburu Olano. Lagundian 1725ean sartu zen eta Iruñera jo zuen bere ikasketak amaitu ondoren, bertan bere lan izpirituala burutu zuelarik. Han igaro zituen 30 urteetan misio asko egin zituen Nafarroako herri askotan eta haien ezaugarri nabarmena dugu dantzak debekatzeko egin zituen saioak. Herrietako batean, esaterako, bertakoei behartu zien zin egitera ez zutela inoiz gehiago

dantzarik egingo eta ez zutela beraien inguruan hori onartuko. Badaezpada ere, udalekin akordioa lortzen saiatu zen eta hori gertatu zen, adibidez, 1746an Azkoitian eta Azpeitian. Toki askotan luzatu zuen dantzak kentzeko deia, dantza saio guztien atzean bekatua zegoela argudiatuz. Dena den, berehala uko egin zuten bere hitza jarraitzeari, lehen esan dudan bezala, dantzak debekaturik egon ziren urte haietan azken 20 urteetan baina haur gehiago munduratu zirelako. Larramendik, dantzen aurka zegoen “Don Quijote”-tzat zuen Mendiburu, soilik berak ikusten zituen arrazoiak baitzituen:

- I. Dantzatzea bekatu larria zen.
- II. Herriko dantzak bizio guztien jatorria ziren, eta hauek debekatuko baziren, bekatuak desagertuko ziratekeen.
- III. Dantzara jotzea luxuria zen eta horretara zihoan edonor bekatu egitera zihoan.

Kontu guzti hauek Gipuzkoa guztia aztoratu zuten, Junta orokorretan, printzeen jaiotzetan, ezkontzetan ohitura baitzen emakume ezkonduekin, zerbitzariekin etab. dantzatzeko. Mota horretako festak oso ohikoak ziren eta ia dantza guztiak testuinguru horietan gauzatzen ziren. Gainera, gure misiolariak ez zituen jai mota hauek aipatu ere egin, lehen aipatu dudan Salomeren kasua bezala, isildu egin zuen. Idazleak elizgizon batzuk aipatu zituen bere teoria indartzeko; hala nola, S. Agustín, S. Juan Crisóstono, S. Francisco de Sales,... Hala ere, ez ziren oso bideragarriak bere ideiak arrazoitzeko, ez baitzuten bera bezala pentsatzen. Honen adibide dugu San Francisco de Sales Ginebrako gotzainaren hitzak, zeinak ez zituen dantzak ez ontzat ez txartzat jotzen. Motzean esanda, elizgizon hauek beraien garaiko dantzak, dantza paganoak, kritikatzera mugatu ziren eta beraz, ez ziren oso arrazoi eta kritika baliagarriak Mendibururen garairako. Larramendik elizgizon hauen kexak edota kritikak onartu zituen, kontradantza, fandango,... konketu batzuk probokatzailleak iruditzen baitzitzaizkion. Mendiburuk, aldiz, dantza guztiak zaku berean sartu zituen eta denen aurka joan zen. Dantza pribatuak eta plazakoak, bi motak ikusten zituen gaizki. Azkenik, dantzen aurkako Iruñako gotzainaren ediktua erabili zuen Mendiburuk. Larramendik Mendibururen arrazoi faltsuetako batzuk harrapatu zituenean, gogor kritikatu zuen misiolaria, gotzaina gaizki erabiltzeagatik halako ediktu bat idaztera:

Quando el edicto habla por boca y lenguaje de nuestro autor energúmeno, quiere desterrar las danzas de raiz y de cuajo, pero cuando el obispo habla por su boca y su natural lenguaje, no las quiere desterrar. Responde el autor que aunque las permita, desea que se destierren. ¡Friolera! (Larramendi, 1764 : 1990, 399)

Gotzainak argitu behar izan zuen ediktuak leku publikoetako dantzak onartzen zituela, baldin eta apaiza edota alkatearen aurrean burutzen baziren.

Dena den, ezin dugu pentsatu Mendiburuk bere aldeko beste autorerik topatu ez zuenik. Beste hainbeste aipatu zituen bere gutunean; Azkoitiko Olaskoaga autorea eta Lesakako Mikelestorena ditugu honako hauen artean.

Gizon emakume nahasketa horretan intentzio txarrak ikusten zituzten alde guztietatik, eta nola ez, haien sinismenaren arabera, errua emakumearena zen. Emakumeak bide txarretik eramaten zuen gizona, jolasari hasiera plazan emanaz eta jarraipena handik kanpo emanaz. Gizon eta emakumearen artean ematen zen kontaktu fisikoaz gain, jantziak ere aipagarriak ziren, emakumeak inoiz ez bezala joan ohi baitziren jantzita plazetako ekitaldi hauetara. Larramendik ez zuen inongo kalterik ikusten arlo honetan, baina Mendiburuk, aldiz, bai. Andoaindarraren iritziz, andreak askotan joan ohi ziren ongi jantziak, erromerietara, ezkontzetara, zezenetara,...eta ez zuen zertan faktore probokatzaila izan eta are gutxiago, plazan herritarren aurrean dantzatu behar zutela jakinda. Gainera, ongi jantzita joatearen arrazoietakoa bat gizonen aurrean eman nahi zuten itxura zen, hau da, ez baitzuten zikinak edo probokatzailak zirela pentsatzerik nahi. Hortaz, lepoa, bularrak, sorbaldak,...guztiz tapaturik zeramaten eta honek gizonekin inongo kontaktu fisikorik izatea oztopatzen zuen. Pobrenek ere edozer egiten zuten arropa erosteko dirua aurrezteagatik eta garrantzia handiagoa ematen zioten ongi jantzeari, ongi jateari baino. Azken jarrera honekin Larramendi bera ere ez zegoen ados. Bere ustetan, aspaldiko garaietan Gipuzkoako gizon emakumeak hobeto jantzen ziren; beranduago, ordea, Gaztela eta Frantziako moda jarraitzen hasi ziren eta hura ez zen andoaindarraren gustukoa izan.

### 3.- DANTZAK BEKATUA LAGUN

Mendiburuk dantzekiko zuen jarrera ez zen gainontzeko elizgizonetik asko urruntzen eta hortaz, ez zen zaila haren korrontea jarraitzen zuten apaiz edota idazle gehiago topatzea. Antzeko korrontean ditugu Juan Antonio Mogel eta Jose Ignazio Gerriko.

#### 3.1.- Juan Antonio Mogel

Idazle neoklasiko hau Eibarren jaio zen 1745ean. Calataduyen ikasi zuen eta bertan josulagunek bultzaturiko hezkuntza tradizionala jaso zuen. Bestetik, ideia neoklasiko akademizista eta ilustratuen eragina izan zuen. *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac* (1800) lanean bigira, erromeriak eta dantzak kritikatu zituen. Bigirak erromerien antzeko jaiak ziren, baina nekazariak antolatzen zituzten beraien etxeetan eta pribatuak izan ohi ziren. Bertan jende askok hartzen zuen parte, tartean neska eta mutil ezezagunak. Jai mota hauek arto-zuriketa eta liho-apainketetan eman ohi ziren, lan hauetan auzoetako gazte asko biltzen zirelako. Lan haien ondotik, gertatu behar ez zirenak gertatzen omen ziren Mogelen hitzetan: hitz gaiztoak, lotsagabekeriak, erokeriak,... Erromerietan ere mutil eta nesken artean ematen ziren ukipen, elkarrizketa, musu edota kantuak lotsagarriak ziren, gaua egiten zen arte asko eta asko horretan aritzen omen zirelarik. Gazte hauek barkatuak izan nahi bazuten, egindakoak kontatzera beharturik zeuden eta konfesatzekotan, zin egin behar zuten ez zirela gehiago halako toki eta bilkuretara joanen. Erruduntasun fokua bereziki emakumearengan jartzen zuela esanen nuke, pasarte batean honako hau baitio:

Ez det nik nai alakorik egin dezen, esan oi dute emakume askoak; dibertitu edo olgatu bai. Baña badakite egingo diozkeela ala egin oi dutelako danza modu askotan, zertako jarri anima galtzeko peligroan? Zer? Olgatu, edo dibertitu itz desonestro, ta eskuka zikiñak ekusten diran dibersioetan? (J.A. Mogel, 1800 : 2005, 427)

*Kristau erakasle euskalduna* (1994) liburuan emakume dantzarietara buruz hitz egiten zuen, anima galtzeko berezko indarra duen gizabanakoa zela esanez. Haien hitzek, eskuek, begiradek, etab.ek galbidera zeramaten gizona eta Mogelek deabruaren ehiztaritzat zituen.

Guzti honetaz gain, jai egunak dantzetara mugatzen zirela kritikatu zuen, gero eta gogo gutxiagorekin joaten baitziren herritarrak mezara Jainkoaren hitza entzuterara. Dantzetara eta ardoa edatera, aldiz, gogotsu joaten ziren; berak primeran zioen bezala, Jainkoaren egunak deabruari eskaintzen zitzaizkion. Egoera pixka bat puztuz, Euskal Herria erdaldunen herriekin konparatu zuen, esanez denbora askoan azken herri hauetan bizi izan zela eta ez zuela kalean inoiz halako jarrera zikinik ikusi gizon eta emakumeen artean. Euskal Herrian, ordea, festa egunetan ez zen kalera irteten ausartzen ikus zitezkeen lotsagabekeriengatik. Bere ustetan, dantzak zekarren arriskuaren berri izan arren dantzara joaten jarraitzen zutenak ziren bekatari handienak eta egiten zituzten dantzei zegokienez, fandangoa zen beretzat arriskutsuenetakoa, hor ematen baitzen mutil eta neska arteko kontakturik handiena.

### 3.2.- Jose Ignazio Gerriko

Jose Ignacio Gerriko (1740) ez da oso autore ezaguna izan euskal literaturaren unibertsoan, baina dantzari buruz hitz egin zuenez eta aurretik aipatu dudan Juan Antonio Mogelen garaikidea denez, interesgarria iruditu zait nire lanean txertatzea. Segurakoa ez da aurretik aipatu dudan autoretik gehiegi urruntzen eta bere *Kristau doktriña guztiaren esplikazioaren saiakera euskarazko platika edo doktriñetan partiturik* (1995) lanean dantzak bekatutzat jo zituen, hauek gaizki egiten ziren heinean. Gainera, bekatu hark beste batzuk ekarriko zituen atzetik. Dantza bekatu den ala ez esateko dotrina luze bat beharko lukeela argi utzi zuen. Hala ere, oso argi zuen bekatu askoren lehenengo pausoa dantzariak elkarri eskua ematen zioten momentuan hasten zela, keinu hark gerora askoz okerragoak ziren jarrerak ekartzen baitzituen, hala nola, mutilek haien eskuak nesken bularretara eramatea, oinekin soinekoak altxatzea, atximurka egitea,... Karrika-dantza debekatzea eta dantzak ilundu aurretik amaiturik egotea proposatu zuen eta gainera, ez zuen errukirik musikariak zigortzeko orduan.

Halako jaietan ez zen beti bekatua ematen, baina arriskua handia izan ohi zen, eta nola ez, emakumea zen arrisku haren erruduna.

## 4.- MENDIBURUREN AHOTSA XIX. MENDEAN

Mendibururen dantzekiko jarrera hertsia ez zen soilik XVIII. mendeko kontua izan; lehen ikusi dugun moduan, mende horretan bertan antzeko jarraitzaileak izan zituen eta ondoko mendean ere antzeko pentsamoldea nabaritu ahal izan zen autore batzuek partetik. Autore horietako bi Juan Jose Mogel eta Frai Bartolome de Santa Teresa.

### 4.1.- Juan Jose Mogel

Juan Jose Mogel (1781), osabaren antzeko bidea hartu zuen sermolaritza eta euskal liburuen idazkerari zegokionez. Interesatzen zaigun gaiari buruz dihardu *Baserritaar jakitunaren etxeko eskolia* (1816) lanean. Argitaraldi bat baina gehiago izan zituen eta Lino Akesolok (1981) zioen lehenengo argitaraldian dantza, erromeria, jaiak, bigirak eta bekatuak bestelako arriskuak oso egoera beldurgarrian jarri zituela. Bigarren argitaraldian, aldiz, ez zuen hain beltz ikusten Euskal Herriak dantzekin zuen harremana, etxe askotan galdu egin baitziren mota honetako festak. Bigirak ziren Debako autoreak gehien kritikatzeko zituenak, hauetan parte hartzeagatik arima asko infernua baitzeuden.

Bere osabaren iritzi berekoa zen bekatariak dantza hauetan euren borondatez parte hartzen zutenak zirela esaten zuenean. Hala ere, egoera ilun samar ikusten zuela erranen nuke, arriskua sumatzen baitzuen ia bilkura gehienetan; egurketa lanetan, simaurtze lanetan, etab. Santuen egunak ere arauak hausteko aitzaki bihurtu ziren ardoa, danbolin soinuak eta barreak nahastuz.

Honek ere emakumearen kontra gogor jo zuen, hauek gizonen batzar guztietara (pilota partiduak, probak,...) joaten zirela leporatuz. Gonbidatuak zirenean lotsa barik azaltzen ziren eta bestela ere, prest zeuden bekatu egitera joateko. Plazako dantzak azaltzean, oso leku txarrean ipini zituen emakumeak, objektu gisa hain zuzen ere. Bigarren plano batean jartzen ziren, plazaren inguruan, norbaitek dantzara aterako zituen esperantzarekin eta baiezkua ematen zioten eskaintza egiten zien edozeini. Hala moduan egiten zuten dantza eta egoera okertu egiten zen danbolin joleek eta txistulariek fandangoa edo ariñ-ariña jotzen zutenean.

Emakumearen papera oso maila apalekoa da mintzagai dudan obra honetan. Nola ez, obrako protagonistaren emaztea ezin emazte hobea da, denetan zintzoena, baina denbora guztian bere senarraren atzean egotera mugatzen da, bere itzala izatera, bertze edozer egin edo esateak bekatuta eraman baitezake emakumea. Protagonistak bere alabari hitz egiten dion pasarteren batean emakumeei buruz dihardu, orokorrean dirua arropan eta apaindurak erosten gastatzen dutela esanez. Agerian geratzen da haien erruz, seme-alaba asko erdi biluzik zebiltzala kaletik, eta famili askotako etxeetan gosea pasatzen igarotzen zituztela egunak. Esango nuke pasarte honetan urrutirago doala emakumearen deskribapenean eta dantzak izorratzeaz gain, familia eta haren ekonomia izorratzen dituztela dirudiela. Emakumeak dantzatik kanpo zer nolako papera zuen aztertzeraz ez naiz lan honetan sartuko, baina eremu batean jorratzen duen paperak bestean jorratzen duenarekin zerikusirik handia izan dezake, bietan gizona baina maila beheragoko batean kokatzen baita.

Harritzekoa zait Juan Jose Moglek emakumeen inguruan halako ikuspuntua izatea, bere arreba izan baitzen euskal literaturaren lehenengo emakume literatoa eta horrek aurrerapauso bat suposatu zuen emakumeak gizartean zuen estatusan. Horretan aurrerakoitzat jo dezakegu Bizenta Mogel idazlea, baina haren anaiak emakumearen maila eta postura nahiko behean mantentzen zuela ikusi ahal izan dugu.

#### 4.2.- Frai Bartolome de Santa Teresa

Bartolome Madariaga Markin-Etxebarrin jaio zen 1768an eta Corellako etxean bihurtu zen fraide karmeldar 1789an. Haren ikuspegia aztertzeko, bere *Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko-gatz-ozpinduba* lanaz baliatu naiz, lan honek mami handia baitu dantzaren inguruan. Obra hau Iruñean agertu zen 1816an eta nahiz eta ordutik edizio ezberdinak egon diren, ni Luis Maria Mujikarena erabili dut honako lan hau burutzeko. Obra hau oso egokia zait elizgizon honek dantzen inguruan zuen iritzia jasotzeko.

Liburuak 5 kapitulu ditu, lehenik “Jesu-Kristo geure jaun kurutzian josijari” izenburua duen eskaintza luzatzen duelarik. Zati honetan liburuaren nondik norakoak azaldu zituen autoreak. Lehenengo eta bigarren kapituluetan olgetei buruz hitz egiten zuen “Olgetiaren gainean” izenburua emanik lehenengoari. Hirugarren kapitulua da mintzagai ditudan plazako erromerietako dantzei buruz aritzen den atala eta beraz, niri gehien interesatzen zaidana. Laugarren kapituluan, aldiz, sarauak, bigirak eta erromeriak ditu hizpide. Liburua bosgarren kapituluarekin amaitzen du, “Dantzeen paboreko errazoiak eta erantzunak” izenekoarekin. Azken atal honetan, dantzen aldeko arrazoiak deuseztatzeari ekin zion. Dantzen aurkako karmeldarraren jarrera ez zen hain gogorra eta basatia, okerragoa baitzen, esate baterako, Mendiburu. Frai Bartolomek ez zituen euskal dantzak, plazan mutilak mutilekin eta neskak neskekin egiten zituztenak eta erromerietan egiten ziren neska eta mutil arteko dantzak nahasten. Hau da, ez zituen denak zaku berean sartzen.

Orokorrean, olgetei buruz dihardu eta batzuk hain txartzat jotzen ez dituen arren, txarrenen artean okerrenak dantzak direla argi uzten du. Bazekien dantzak bekatutzat jotzen ez zuen jendea bazegoela, baina bere ustetan dantzarako modu batzuek bekatutarako okasioa luzatzen zuten. Modu haiek sexu ezberdinetako dantzariak elkartzean ematen zen. Harrigarria zitzaion halako gizarte kristauan mota honetako bekatuak egotea eta susmoa zuen ez ote zen dantzen inguruan ezer idatzirik ez zegoelako.

Euskal Herriko olgeta ohikoak jokoak, ehiza, paseatzea, soinua eta dantza lirateke eta nola ez, denetan okerrena dantza zen. Gizonek edota emakumeek bakarrik burutzen zituztenean ez ziren bekatu, baina biak nahasten baziren bekatutarako arrisku handia zegoen, berez guztiz bekatutsuak ez ziren arren. Dantza nahasiak ematen zirenean, neskak mutilen zain egon ohi ziren dantzara atereak izateko. Gutxi batzuetan, ordea, neskek lotsa galdu eta dantzari hasiera ematen zioten, itxura txarra eta izaera lotsabakoa transmititzen zituztelarik. Horretaz gain, jostaketa amaitzen zenean emakumea ikus zitekeen lurrean edonola botata eta hori oso kritikagarria iruditzen zitzaion autoreari.

Aztergai dugun obran, festa giroan plazara dantza egitera joaten zen jendearen ezaugarri orokorrak atera zituen Frai Bartolomek eta bost multzotan banatu zituen. Batetik, adina zegoen; dantzariak 18 eta 50 urte bitartekoak izan ohi ziren eta oso gutxi ziren adin tarte horretatik pasatzen zirenak. Bere ustetan, tentazioei aurre egiteko adinik zailena hura zen. Bigarrenik edate mailaren kontua zetorren, halakoetan jendeak ardo gehiegi edaten baitzuen eta horrek tontakeriak egitera eramaten zituen. Hirugarrenik, jantzia dugu, emakumeak batez ere ongi apainduak joaten zirelako plazan dantzan egitera eta modu horretan tentazio hutsa zirelako gizonezkoentzat. Ondotik nasaitasuna dago, dantza eta festen jarraitzaileak zirenak gainontzeko mandamenduak oso erraz apurtzen zituzten normalean eta ez zuten bekatu egiteko beldurrik izaten. Azkenik, dantzarien estatusa dugu, eta gehienak bikote gabeak zirela nabarmendu behar da, nahiz eta ezkondu batzuk ere bazeuden haien burua arriskuan jartzen zutenak. Beraz, dantzatzen ez zutenak nolabait lotuak zeudenak ziren: agure eta atso zaharrak, haurdun zeuden emakumeak eta dantzara ateratzen ez zituztenak.

Interesgarria deritzot Fr. Bartolomek egiten duen “neska” eta “neskatilla” hitzen definizioen ezberdintasuna. Azken honek berekin zekarren errespetua, lotsa eta antzeko adjektiboak. “neskatilla” batek dantza eginez gero, ez zuen izen hau merezi eta “neska” bat izatera igaroko litzateke.

Aipagai zituen dantzak meza aurrekoak ziren, plazan egiten zirenak, baina meza ondorengokoekin konparatzen baditugu, bigarren hauek ziren karmeldarrentzat arriskutsuenak. Hauen artean kokatu behar ditugu sarauak, bigirak eta erromeriak. Apaizak hiru hauen azalpenak luzatu zituen bere lanean. Sarauak aurretik aipatutako bigiren antzekoak ziren, baina honako hauek aberatsek antolatzen zituzten etxe handietan eta antolatzaileak haiek zirenez, jauntxoak, damak,...eta maila altuko jendeak hartzen zuen parte. Bartolomek aberatsen festak gaitzetsiangoak zituen nekazarienak baino. Zergatik? handien etxeetan bekatu eta gaitzakeria handiagoa zegoelako, eta horretaz gain, kantuek zein musikak egoera are gehiago okertzen zutelako. Bekatari handiagotzat zuen, ordea, saraua aurrera ateratzeko etxea uzten zuen gizabanakoa.

Kokaguneari dagokionez, erromeria asko eta asko herriko elizan egiten baziren ere, beste anitz baso edo mendiren batean zeuden ermitetan egiten ziren. Normalean, gurasoei gezurra esan eta etxetik ateratzen ziren gazteak ziren bekatari hauek. Bidea iluna egon ohi zen mendira abiatzen zirenerako eta giro hark plazako erromeriak baina arriskutsuago bihurtzen zuen dantza. Gizon-emakume harreman hori zenez autore guztien gaitzespen arrazoia, Fr. Bartolomek ere horrexegatik kritikatzten zituen zorrotz meza ondorengo



momentu horiek. Bertan ematen ziren hitz zikin eta mugimendu lizunak bekaturako bidea errazten zuten. Halako jaietan inongo premiarik gabe parte hartzen zutenak ziren bekatari handienak eta beraien borondatez parte hartzen zutenekin kristautasuna ez omen zen haserretzen. Gorputzari gustua emateagatik egiten zutenak ez ziren bekatutik askatu edo absolbituko, berriro eginen ez zutela esan arte. Gutxi batzuk baino ez ziren osorik edo birjin mantentzen sexuaren aldetik ezkontza momentura arte eta gutxi hauek dantzetan galtzen zuten birjinitatea. Horrek arau hauste bat suposatzen zuen ezkontzara garbi iristeko bidean.

Arazo guzti hauei irtenbidea emateko soluzio egokia dantzak desagerraraztea litzatekeela esanen luke batek baino gehiagok, baina hau gertatzen ez zenez, jende asko dantzak hain txar eta maltzurak ez zirela pentsatzera iristen zen. Dantzak desagertzeko modu bakarra ikusten zuen Fr. Bartolomek: dantzatzera inor ez agertzea; dantzaririk egon ezean, dantzak desagertu eginen lirateke.

Mendibururen antzera, Fr. Bartolomek ere santuen testigantzak ekarri zituen haren obra mamitzeko asmotan, nahiz eta berak ez zituen modu berean erabili. Izan ere, berak dantzen alde azaltzen ziren santuen aipuak ekarri zituen haiek baliogabetzeko. Bestetik, deigarria iruditu zait festetan bekaturik egiten ez “omen” zutenei zuzendurik Fr. Bartolomek esandakoa:

Oh, dantzarik dantza, piestarik piesta, erromedjarik erromedija, bigirarik bigira ta saraurik sarau, neska eta mutil, andra eta gizon naaste, gau eta egun oi zabiltzan moduban ibilita, pekatuak egiten ez dosun bedeinkatubok! Lastimia nortzuk zarian ez jakitia! (Fr. Bartolome, 1816 : 1986, 185)

Gazteek olgetan egiteko eskubidea zutela ziotenak ere baziren, baina gure autoreak ez zuen arrazonamendu hori defendatzen. Haren ustetan berdin zuen zein adin edo estatu zenuen, gorputzak edozein egoeratan eskatu baitzezakeen dantzan egitea. Plazan dantza egitea ezkutuan egitea baina hobea zela esaten zuenik ere bazegoen, nahiz eta gehienetan ezkutuan egiten zen plazan egin ezin zitekeena.

Bere ikuspuntua bultzatzeko, beste aita santu batzuek eta idatzi sakratuek ziotena ekarri zuen liburura: izpiritu santuaren testigantza, San Ziprianorena, San Juan Krisostomorena, San Efrenena, San Ambrosiorena, Santo Tomasena, San Agustinena, San Basiliorena, San Antoninorena eta San Karlos Borromeorena. Testigantza apur bat berriagoak ere ekarri zituen, Benedikto XIV.enaren eskutitza esaterako. Santu gehienak bat egiten zuten dantza nahasien inguruko iritzietan, deabrua eta bekatua ikusten baitzuten haietan eta nola ez, deabruaren aguazilak emakumeak ziren.

## 5.- DANTZAK BAI, BAINA PLAZAN

Larramendiren antzera dantzak gaitzesten ez zuenik ere bazegoen eta horietako bat dugu 1767an jaio zen Iztueta zaldibiarra. Esan beharra dago Iztueta dantza irakaslea izan zela eta dantza talde ugari antolatu zituela. Autorea liberalengandik nahiko hurbil kokatu dezakegu, bere *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia* lanean probintziaren indartzea aldarrikatzen baitzuen. Aipatutako obra hiru zatitan banaturik zegoen: lehenengo zatian danbolin joleei buruz aritu zen, bigarreanean, bere zema ideologikoa sartu zuen dantzen galeraren inguruan eta hirugarrenean, aldiz, 36 dantzen deskribapena eta hauek dantzatzeko jakin beharrekoak luzarazi zituen. Liburua, lehenengo aldiz Donostiako Inazio Ramon Barojarenean agertu zen 1824an eta ondotik argitalpen gehiago etorri ziren. Lan honetan erabili dudana Mari Jose Ezeizabarrenak Klasikoak Bilduma sailean argitaratutakoa izan da.

Liburua argitara eman zenean Gipuzkoa osora zabaldu nahi izan zuten, garai hartan plazan agerian zegoen dantza-giro nahasiaren erakusgarri aparta baitzen eta bide batez, plazan zer egin behar ez zen erakusteko baliagarria zelako. Horregatik, predikari batek baino gehiagok haren intereserako erabili zuen Iztuetaren lana dantza nahastuak desagerrarazteko asmoarekin.

Iztueta foruen aldekoa zen eta nahiago zuen gauzak bere horretan mantendu, gizarte zahar tradizionalen ikusten baitzituen iraultzarako balioak. Dantza iraultzaren sinbolo haietako bat litzateke, euskaldunen izaera askearen lekuko baita. Plazako berdintasun eta anaitasunaren erakusle garbiak omen ziren dantzariak. Zaldibiako autoreak dantzarien akatsen errua danbolinteroek leporatzen zien. Gipuzkoako dantzen gainbehera hauen erruz eman omen zen hein handi batean eta gertakari hau frantziar iraultzaren garaian kokatzen du. Danbolinteroak herritar xumeak izan ohi ziren, abeltzainak, baserritarrak, nekazariak,...gehienak ere ikasketarik gabekoak. Hortaz, oso erraza zen ia herri guztietan mota honetako musikariak topatzea. Arazoa ondoren etorri zen, musikariak eskolatu zirenean; izen handiko musikariengana joaten zirenez, dantza tradizionalak moldatzen hasi ziren, aire berrietara egokituz. Haien ustetan, kantu berriak jantzi berrietara hobeto egokitzen ziren. Iztuetak dantza berri hauek kritikatu zituen, bere ustetan ezin baitziren kantatu ezta dantzatu ere. Danbolinteroek garai hartan European modan zeuden minuetoak, balsak, boleroak eta kontra-dantzak ikasten zituzten. Behin hauek ikasita, musikariak dantza eta kantu tradizionalak alde batera uzten hasi ziren, hauek jotzea lotsa ematen

zielako. Ondorioz, betidanik jo izan ziren dantzak azken mailan geratu ziren. Hala ere, dantza hauek bizirik mantentzeko ahaleginetan jardun zuten danbolintero batzuek.

Dantza berri hauetan dantzariak hartzen zuten jokabideaz lotsatzen zen Iztueta. Tradiziozkoak ziren dantzen aurka ez zuen ezer esaten, baina balsa, bolero eta holakoetan presente egoten ziren lausengu eta zurikeria itsusiek ez omen zuten ezer onik ekartzen. Tradizioaren aurka egoteaz gain, moralaren aurkakoak ere baziren. Kontu zikin hauek emakumeak dantzatzen zutenean ematen ziren, baina gure autoreak baldintza bat ezarri zien plazetako dantzetan parte hartu nahi zuten emakumeei:

Dantza serbitzalleak beti esan bear dio dantzarako deitua dan neskatxari, noren eskura joan bear duen; eta baldin baluke neskatxa ark, ezerago edo inkonbenienteren bat deitzen duenaren eskura joateko, eta ez badu serbitu nai, ez du arratsalde artan joan bear besterengana ere; zergatik guztiz irain gaiztoa dan mutillarentzat, berari etorri nai etzaion neskatxa bestegana joatea.

Onelakoetatik ikusi izan ditut nik gertatzen aserre aundiak, borrokak, eta makilkak, ala era berean plaza agirikoetan, nola ondorean beste toki anitzetan. (Iztueta, 1990 , 150)

Dantza berri hauetako batzuk plazan ematen ziren arren, beste askoren testuingurua sarauak izan ohi ziren sarritan, hauek etxeetan gauzatzen zirelarik. Plazatik kanpo, toki pribatu eta ezkutuetan egiten zirenak ez zituen gustuko, dantzen jatorria plazan zegoelako ideia defendatzen zuelako. Autoreak, bera gaztea zeneko anekdota bat gogoratzen du: plazan gizabanako bat sartu zen dantzen erdian neskak zirikatuz, ukituz,...eta alkatearen ordenei jaramonik egiten ez zenez, presondegian amaitu zuen. Plazako egoera honen aurrean apaizek eta jendeak hartzen zuen postura ikus dezakegu mintzagai dugun obran zehar. Plazan, zigorrik handiena eta jendearen artean famarik handiena dantzari zatarrenak eramaten zuen:

Beragatik, atera oi dirade illun alderonz, beren arpegiak garbitzen ongi ikasi gabeko iru edo lau mutil zirzil, beste hainbeste neska moldakaitzekin, plaza agirikora; non oi dabilzan izulamilka, nazkagarrizko lotsagabekeriak baizik egiten ez dutela; zeñean, ezin legokean iñor berai begira, txit damurriaturik guziz engurrutu gabe. (Iztueta, 1990, 91)

Bazegoen Iztuetak gustuko ez zuen beste dantza pare bat ere: fandangoa eta Bizkai-dantza. Bi hauetan ematen ziren gizon eta emakumeen arteko jolasik handienak. Bera gaztea zenean debekaturik omen zegoen fandangoa dantzatzea eta musikarekin jotzea, baina gerora, dantza hau zortzikoa ordezkatzan joan zen pixkanaka pixkanaka.

Beraz, argi ikusi dezakegu Iztueta dantzen aldekoa zela eta hauek plazan egitearen alde zegoela. Emakumearen presentziari dagokionez, baldintza batzuekin baino ez zuen onartzen emakumeak plazan gizonekin lanean aritzea. Dena den, dantza berriek zekarten arriskuaz jabeturik zegoen eta aski ongi zekien arriskua handitu egiten zela dantzak

plazatik kanpo burutzen zirenean; hortaz, etxe barruan egiten ziren dantzak gaitzesten zituen. Dantzen jatorria plazan ikusten zuen eta ez zitzaion egokia iruditzen hauek espazio hartatik kanpo burutzea.

Iztueta Frai Bartolome de Santa Teresarekin konparatzen badugu, ikusiko dugu ez zutela dantzekiko ikuspuntu berdina, baina gauza batean ados zeuden biak: plazatik kanpo, gela itxietan egiten ziren dantzak gaitzesten zituzten. Arrazoiak ez ziren berdinak; karmeldarrarenak erlijiosoak ziren eta Iztuetarenak politikoak.

## 6.- ALDAKETA GARAIA

XIX. mendean aurrera joan ahala, dantzak mugatzeko eta zigortzeko saioak gutxituz joan ziren, nahiz eta misiolari eta elizgizon batzuk antzeko legeak proposatu eta onartuz jarraitu zuten. Borroka honetan jarraitzen zutenak misiolari apostolikoak ziren eta beraien metodoa, lehen Mendibururekin aipatu dudana bezala, herri misioen bidez herrikideen ideiak eta bizimodua euren erara bideratzea zen, kristauak bide egokitik gidatuz. Misioak zonalde euskaldunetan gehiago gauzatzen ziren eremu erdaldunetan baino; Nafarroan, esate baterako, ekialdea eta Erribera nahiko abandonaturik izan zuten. XX. mendeko misio-aldi berankorraren adibide dugu Azkueren *Ardi Galdua* lana, 1918an *Euskal Esnalea* aldizkarian argitaratua. Bertan “Leaburu” herria azaltzen da, euskaldun eta fededunen herria, non tradizioa eta ohiturak gorde egin diren, dantza garbiak barne. Bizitoki eredugarria erakusteko lan ezin hobea misiolariantzat.

Herrietako apaizek ere bazuten zer esana dantzen inguruan garai hartan, eta dantzak bekatua zekarrela pentsatzen zuenik ere bazegoen oraindik. Bidadorrek (2005) bere liburuan ekartzen duen adibideetako bat *La Avalancha* (1898) aldizkari katolikoan azaldu zen “El baile” izeneko idazki anonimoa da. Idazki honetan<sup>4</sup>, dantzaria dantzatzen hasten den momentutik bere gizatasuna alde batera uzten duela dio idazleak eta kritikatzeko zituen dantzak, orokorrean atzerritarrak ziren: polka, habanera, ... Haietan ere, nola ez, emakumea zen moralki eta kristautasun aldetik kaltetuena eta gizona haren gainetik gailentzen zena.

---

<sup>4</sup> “El bello sexo bailando es lo más triste. El baile para las jóvenes ese l criadero más fecundo de lunares y defectos. Mujer que ha bailado una sola vez no puede ser perfecta, ha tenido que separarse de la formalidad, ha tenido que ser inmodesta y vana por las exageradas galanterías de su pareja(...) El baile es la cátedra del vicio, las jóvenes son los alumnos, el profesorado lo forman los hombres”. (*La Avalancha*, 1898/02/08, 18-19)

Dantzak arautzen zituen moralitateari eusko abertzaletasuna gehitu zitzaion eta ordura arte kritikatuak izan ziren dantza nahasi asko normalizatuak eta onartuak izatera pasa ziren; ingurutxo adibidez. Ondorioz, erlijioaren bazterkeria jasan behar izan zutenak Euskal Herritik kanpo zetozen dantzak ziren. Korrante honetan idazle foruzaleak aipa daitezke: Elizanburu saratarra, Aristides Artiñano eta Gorosabel, esaterako. Aurreneko biek ez zituzten emakume dantzariak haien obretan aipatu, ezta aurreko mendeetan elizgizon eta apaizek kritikatuak hainbat faktore ere. Argi utzi zuten, ordea, dantza berriak, hau da, atzerritarrak, debekatuak zeudela. Dantzei buruz mintzatzean asmo folklorikoa alde batera uzten zutela esan dezakegu, haien helburua foruen alde egitea baitzen eta dantzak ezinbesteko osagai ziren tradizioaren barruan. Hortaz, bai ala bai, bertakoak zirenak toki onean uztea beharrezkoa zen. Artiñanok dantza atzerritarrak euskal erromerietatik kanpo zeudela baieztatu zuen *El señorío de Vizcaya histórico y foral* (1885) lanean. Pablo Gorosabel Tolosarrak, aldiz, euskal dantzekiko beste ikuspuntu bat erakusten zuen, lanean zehar aipatu ditugun autore gehienek aldera. Erromeriak moralki eta erlijio aldetik onuragarriak ez zirela zioen, bi sexuetakoko gazteen jolas eta algarak ematen zirelako. Dena den, Iztuetak eta beste batzuek kritikatzeko zituzten dantza berriak eta beranduago Europatik etorri zirenak, gure artean jada oso erroturik zeudela onartzen du. Musikarien inguruan ere danbolinteroei kantu eta molde berriak ikastearen aldekoa zen, bere ustez garai berrietara egokitzea ezinbesteko lana zelako. Kurioso da emakumearen presentziaren berri ez ematea, baina aurrerapauso handia izan zen euskal dantzak modu zabalagoan onartzea, denboran aurretik zenbat debeku zekartzaten ikusirik.

Ikusi ahal izan dugun bezala, Elizak oraindik indar handia zuen XIX. eta XX. mende hasieran ere misio eta arauen bitartez, nahiz eta aurretik martxan ezarritako arau askok indarra galduz joan ziren. Frankismoaren garaian, ordea, euskal gizarte eta kulturak astinaldi handia jasan zuen eta Elizarengan ere ondorioa izan zuen. Euskal kapitalismoak hazkunde ikaragarria sumatu zuen, fazismoak ipinitako baldintzak ezin egokiagoak izan baitziren: erakunde politikorik ez, sindikaturik ez, ...Hau guztia langileen kontura izan zen eta horretarako kapitalistek Elizaren babesia izan zuten, nahiz eta euskal apaiza batzuk ez ziren egoera honen aldekoak. Talde burgesaren aprobetxatze metodo honek herriarengan amorrua sortu eta kapitalismoaren, fazismoaren eta Elizaren aurkako jarrera ekarri zuen Euskal Herrian. Alderdi politikora joz, esan beharra dago PNV-k ez zuela eskua hartu egoera hobetzeko lanetan eta partidu honen aurkako gorrotoa piztu zitzaion jendeari. Modu honetan hasi ziren ezkerrearen beharra nabaritzen.

Krisiak eragin handia izan zuen eta ondorioetako bat 1953an sortutako ETA talde armatuaren erdibiketa dugu: ETA eta EMK. Krisi sozial honi etorkinen etorrera gehitu behar diogu; ordura arte Bizkaiak bakarrik pairatu zuen sarrera gainerako probintziek ere pairatuko zuten. 1961-1970 bitartean Euskal Herriko inmigrazioari dagozkion zifrak ditugu hemen, Txilardegiren *Euskal kulturaren zapalketa (1956-1981)* lanetik hartuak:

- Arabak 25.377 etorkin
- Bizkaiak 113.193 etorkin
- Gipuzkoak 47.930 etorkin
- Nafarroak 13.553 etorkin

Faktore guzti hauen eraginez, Euskal Herriko gizartea asko aldatu zen. Jendea hiritartzen hasi zen, baserriak alde batera utziz eta kalekume bilakatu. Gainera, inmigrazioaren eraginez, soziologikoki aldaketa nabaria eman zen eta Francori asko gustatu zitzaion, euskal nazioa desagerrarazteko modu egokia izan baitzitekeen. Euskal Herriko langileria, aldiz, ez zegoen konforme eta egoerari buelta emateko borroka hasi zuten.

Elizaren arlora itzuliz, indar handia galdu zuela ikusiko dugu. Apaiztegi asko eta asko hustuz joan ziren 1967-1977 hamarkadan eta ez zen ia gazterik sartu hutsunea betetzera. Dena den, seminarioa utzi edota laiko bilakatu ziren apaiza haiek beste borroka mota batean jardun zuten: politikan. Borroka hartan ezker aldera jo eta Jesus, Marxengatik ordezkatu zuten. Apaiz hauen eta sozial inperialisten eskutik 1917 baino lehenagoko marxismo ideologikoa zabaldu zen. Honek laguntza handia suposatu zuen euskal ezkerreara irakitzeko orduan.

Ondorioz, Elizak aurretik zuen presentzia eta indar dezentea galdu zuela ikusirik, suposa daiteke horrek guztiak dantzaren arloan ere eragin handia ekarri zuela eta aldaketa batzuk suposatu zizkiola. Azken finean, erlijioak eta elizgizonek zuten dantzak gaitzetsi eta debekatzeko papera eta dantzen aurrean zuten jarrera zorrotza Elizaren hitza jarraitzen zuten kristau zein fededun onek hartzen zuten. Honetaz gain, gizarte aldaketak ere aire berriak ekarri zituela pentsa dezakegu, baita inguruko edota kanpoko hirietatik zetorren jendeak ohitura liberalagoak uztartzeko ahaleginak eta herriko tradizioak aldatzeko proposamenak tartean egon zitezkeela ere. Guzti honek mesedea egin ziezaiokeen emakumeari. Bestetik, garai hartan euskal kantu abertzaleen sinboloen artean emakumezko bat, Lourdes Iriondo, egoteak eta 1960 inguruan loratzen hasiko zen ikastolen mugimenduan Elbira Zipitria moduko andereñoak egoteak gizarteko arlo gehiagotan emakumearen presentzia “naturalagoa” edo “ohikoagoa” ikusten erakutsiko zuen.

Jarraian datorren puntuan, gaur egungo bi dantza motetan emakumeak izan duen eta izaten ari den onarpenaz jardungo dut. Aurretik esandakotik asko urruntzen ez dela ikusi ahal izanen dugu, nahiz eta Elizaren eta herritarren presioa ez den berdina.

## 7.- GAURKO EGUNERA HURBILDUZ

Atal honetan ez dugu inongo autore edo apaizaren debekurik, tradizioaren pisua baizik. Hortaz, literatura idatzitik apur bat urrundu eta ahozko literaturara (Maskaradak) eta gizartearen jokabidera eginen dut jauzi. Tradizioa bere horretan mantentzeko lanetan aritzen den jendea dagoela ikusiko dugu Mutildantzen kasuan, esate baterako. Errioxako egoera, aldiz, beste mota batekoa da eta emakumeak plazan aritzearen aldeko beste arrazoi bat ikusi ahal izanen dugu.

### 7.1- Maskarada

Maskaradetan emakumezkoak parte hartzen dutela nahiko gauza argia da, baina lehenengo saioetan beraien integrazio arazoak izan zituzten. Zer dira, ordea, Maskaradak? Tradiziozko herri antzerkiaren barruan Inauterietako antzerkiak ditugu eta hor kokatu behar dugu hain zuzen ere Maskarada. XVI. eta XVII. mendeetan Europako zenbait herrialdetan egiten ziren festak eta ikuskizunak ziren, maila handiko jendeak antolatzen zituen maskara jaialdiekin zerikusia zutelarik. Garapenik handiena Ingalaterran izan zuten, maskaraz jantziriko aktoreek eginiko errepresentazioak integratzen zituztelarik. Euskal Herrian, aldiz, oso ezberdina ez den bertze zentzu bat hartu zuen Maskaradak: Zuberoako inauteri garaian kokatu behar dugu, barruan dantza, soinua, mozorroa eta hainbat ezaugarri estetiko-kreatiboak barnebiltzen dituelarik. Bertzetik, erran beharra dago aktoreek ez dutela maskara edo mozorrorik erabiltzen. Ikuskizunaren barruan, mota guztietako gertakizunak daude: entzutekoak, irakurtzekoak eta antzeztekoak. Hortaz, dantza, antzerkia eta narrazioa barnebiltzen ditu. Hitzak protagonismo handia du Zuberoako Maskaradetan; Nafarroa eta Biarnoko auzoetan Maskaradak mutuak baitira. Antzezteko lekuari dagokionez, pilotalekua edota herriko plaza izan daitezke.

Kepa Fernandez de Larrinoa idazle Bilbotarrak *Mujer, ritual y fiesta* liburuan Maskaradei buruzko lana aurkeztzen digu eta inauterietako antzerki honen barruan emakumeak presentzia nola hartu zuen azaltzen du. Uhaitzako bailaran kokatzen du gertakizuna (Valle de Soule) eta dioenez, bailara honetan hiru ospakizun mota daude non

gizonak eta emakumeak biltzen dituzten: herriko jaiak, Pastoralak eta Maskaradak. Maskaradetan, tradizionalki, mutil ezkongabeak mozorroturik eta buruan maskara bat daramatela bailarako herrietan zehar ibiltzen dira dantzak, abestiak eta historiak interpretatuz. Bi taldetan banaturik joan ohi dira eta beraien jantziaren koloreagatik edota gorputza mugitzeko moduagatik bereizten zaie. Maskaradetako errituak pertsonaiak bi taldetan banatzen dira:

- Talde gorria: aitzindariak, marexalak, kukuileroak, jauna, anderea, laboraria eta laborarisa.
- Talde beltza: buhameak, kautereak, txorrotxak, kereztuak eta medizina.

Maskaradetako paper anitzek feminitatea islatu arren, gizonezkoek antzeztan zituzten 80ko hamarkada arte behintzat. Garai hartan aldaketa pixkanaka-pixkanaka ematen hasi zen arrazoi batzuegatik: alde batetik, inauterietako erritualean emakumea sartu zeneko egiaztatze etnografikoa zegoen; bertzetik, testuinguru sozial jakin bat zegoen sartze prozesu hori ahalbidetzen zuena eta azkenik, aldaketa sozio-kultural horien interpretaziorako zenbait kode agerian geratzen ziren. 80ko hamarkada horretan, neska gazteak aktorea lanetan sartu ziren funtzioetan eta honek zenbait eztabaida sortu zituen herritarrengan, Maskaradak erritu maskulinoetat hartzen zuten jendearengan, hain zuzen. Hala ere, hasieran neska gutxi ateratzen ziren ikuskizunetan baina denbora pasa ahala paper handiagoak eta garrantzitsuagoak hartzen hasi ziren. Aurrerago aipatutako pertsonai femeninoetara itzuliz, kantiniarsa, anderea, laborarisa. Paper hauetatik, kantiniarsarena litzateke aktiboena, bere dantzak paper garrantzitsua jokatzen duelako errepresentazioan. Beste pertsonaiak diskretuagoak dira eta ez dute prestakuntza handirik eskatzen beraien antzezpenerako.

Emakumeek, zuberoako erritual maskulinoan haien tokia lortzeko bidean, urratsik handienak azken hamar urte hauetan eman dituzte. Urratsak honako hauek izan dira:

- a) 80ko hamarkadaren hasieran herrietako emakumeak Maskaradetan laborarisa eta anderearen paperak interpretatzen hasi ziren. Momentu hartan ez zen arazoa izan eta berehala onartu zuten, pertsonaien paperetako genero rola haienarekin bat egiten zuelako.
- b) 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera emakumea Kantiniarsaren papera antzeztan hasi zen eta pixkanaka-pixkanaka bertze dantzarien pertsonaietan bere lekua hartu zuen. Honek polemika ekarri zuen emakumearen presentziaren inguruan eta gaur egun ere eztabaidak bizirik dirau.



c) 1992.urtean Eskiulan emakumez bakarrik osaturiko Maskarada gauzatu zen. Honek dantza erritualetan emakumearen parte hartzearen adostasun arazo hori alde batera utzi eta emakumea talde beltzeko baloreak antzezteko egokia zen edo ez eztabaidatzea ekarri zuen.

Herritarren ez zuten ukatzen aitzindarien dantza emakumeek egin zezaketela, baina talde beltzaren mugimenduak hauekiko kontrajarriak zirenez, hauen baloreen antzezpena aktore maskulinoengandik soilik eman beharko zatekeela uste zuten herritarrek, bi estiloen mugimenduak talde hauen baloreekin hertsiki loturik baitzeuden.

1987an Muskildiko Maskaradan txerrero papera emakume batek egin zuenean, kexa anitz egon ziren. Jendeak zioen gizonak eta emakumeek dantza berdina egin zezaketela, baina ez zutela inoiz modu berean egingo: izan ere, gizonak indarra eta kemena transmititu zezakeen, baina emakumeak, aldiz, fintasuna. Beste arrazoietako bat arropa zen; janzkerak atributu fisiko maskulinoak irudikatzen zituen eta emakumezkoak arropa horrekin txerreroren dantza egiten zuenean pertsonaiak egiazkotasuna galtzen zuen. Beraz, Maskaradaren oso ikuspuntu erradikala zuten pertsonentzat emakumea dantzan ikustea erritu izpirituarekiko traizioa zen.

Gizonen artean mota guztietako erantzunak eta jokabideak ikusten ahal dira gaur egun ere. Batzuei normala iruditzen zaie emakumeak Maskaradetan parte hartzea, garaiak aldatu direlako eta gizarteak dakartzan aire berriak Maskaradak berak ere hartzen jakin behar dituelako. Bestetik, emakumearen parte hartzearekin guztiz aurka dagoen gizon talderik ere badago oraindik.

## 7.2.- Mutildantzak

Baztango mutildantzetan antzeko arazoa egon zen eta dago gaur egun ere. Euskal Herriko txoko askotan bezala, ospakizunetako ezinbertzeko osagaia dantza izan ohi da eta halaxe dugu Baztango mutildantza, bertako izaeraren parte edo errepresentazio kulturala, festa ospakizunaren zati garrantzitsu. Baina zer dira mutildantzak? Labur-labur azalduta, baztango mutildantzak XVIII.mende inguruan sorturiko dantzak dira (akaso lehenagokoak ere).

Mutil-dantzak izenak adierazten duen bezala mutilen dantza da. Holaxe lerro borobilean dantzan ikusten ditugu bat bertzearen gibeletik eta, ordularien orratzen aurkako zentzuen aintzinetuz. Dantzaren izenak gazte-ezkgongaien dantza dela erran nahi du baino gizon ezkonduak eta ezkgongai-zaharrek ere dantzaten zuten joan den mendearen erditsutik beinpein, guk entzutea dugunez. (Larralde, X. & Larralde, P. 1991, 11)

Larraldetarrek dioten moduan, mutildantza gizonen dantza da, baina garai batean irudikatzen zuen erritua, 50-60. hamarkadan galdu zen eta gaur egun ere galdurik dago. Beraz, esan daiteke, bertako komunitatea osatzen zutenen isla izan zela mutildantza 1960ko hamarkada bitartean. Giza talde horrek komunean zituen espazioa eta denbora tartek ospatzeko erritual nagusienetakoa zen mutildantza, haien eta iraganeko belaunaldien arteko lotura berresten zutelarik. Egun seinalatuetan dantzatzen zituzten mutilek dantza hauek eta hori zen azken finean, erritua. Horretaz gain, igandero, mutilez aparte, gizonezkoek ere dantzatzen zituzten. Azkenaldian, tokian tokiko jaietan eta ospakizunetan atera izan dira mutildantzak dantzatzera, baina lehen aipatu dudak bezala, erritua bezala galdurik dago.

Gizonen eta emakumeen identitatea gizarte, kultura eta historiagandik baldintzaturik dago. Gizakiak kultura behar du bizi ahal izateko eta bere identitatea osatzen duten elementu guztiak, printzipioak, sinesmenak, hizkuntza, etab. leku eta denborazko baldintzatzaile batzuen barruan garatzen ditu. Honela, giza taldeak kultura ezberdinak eraikitzen dituzten gizarte molde berriei begira, balore horiek transmititzeko eta gizabanakoa taldera egokitzeko. Mutildantzen kasuan, Baztango nekazal komunitatearen errepresentazio kulturala izan dira dantza hauek. Beraz, Mutildantzak nekazaritza munduko gizarte kohesioa ospatzeko eta irudikatzeko errituala zen, baina baita haien aitzineko belaunaldiaren jarraipenak zirela berresteko ekintza ere.

Hortaz, mutildantzek garrantzi handia izan dute Baztan bailaran, eta emakumeak mutilen dantza hauetan parte hartzen hasi zirenean oihartzun handia piztu zen eta gatazkari hasiera eman zitzaion. Liskarrak ugariak izan dira eta neska dantzarien aurkako jarrerak ere mota guztietakoak izan dira. Adibidez, neskak dantzan hasi izan direnean, ados ez daudenek arrautzak bota izan dizkiete, oihukatu, iraindu, eta ikuslegoaz gain, dantzak jotzen dituzten txistulariek musika jotzetik utzi izan dute kantua eta festari amaiera eman. Gaur egun, neska kopuru handia dago mutildantzetan parte nahi duena, baina gizonen historian eta tradizioan bilatzen dute emakumeek ez dantzatzeko arrazoia, Irunen eta Hondarribian alardearekin gertatzen den bezala edota lehen Maskaradetan ikusi dugun bezala. Emakumeek parte hartzeko nahi hau izan aitzinetik, gizonak plazan nola dantzatzen zuten ikustera mugatzen ziren jaia ospatzen zen herriko santu egunean. Margaret Bullenek (2003) zioen bezala: ” *El mero hecho de estar presente en un espacio público no implica necesariamente el protagonismo de las mujeres: más que una participación activa su presencia puede limitarse a la observación o comtemplación de la actividad masculina.*” (2003, 224).

### 7.3.- Emakumezko dantzariak Errioxan

Leku askotan, ordea, mutil faltagatik eta dantza taldea aurrera eramateko beharragatik sartu ziren emakumeak dantzetan. *Fronteras y puentes culturales* (1998)<sup>5</sup> lanean Errioxa inguruko adibide batzuk jaso ditut, non emakumearen presentzia lekuko interes eta beharretara egokiturik eman zen. Errioxako hainbat lekutan mutil taldeek dantza tradizionalak berreskuratu zituzten, baina mutil dantzari nahikorik ez zegoenez, taldean neskak sartzeko ideia izan zuten. Adostasun batera iristea zaila zen, mota guztietako iritziak baitzeuden, baina herri askotan gertatzen zen eta oraindik gertatzen den moduan, gehienetan mutil dantzarien kopurua ez da talde bat osatzeko adinakoa izaten. Halakoetan ia beharrezkoa izaten da neskak dantza talde hauetan parte hartzea, jai giroarekin jarraitu nahi bada. San Vicente de la Sonsierran, esate baterako, ez zegoen mutil faltarik baina arrazoi estetikoak medio, bi sexuetako dantzariak nahastu zituzten dantza taldean. Gainera, herriarentzat atsegina zen plazan emakumeak dantzan aritzea. Arropari zegokionez, garai batean gizonen jantziarekin jantzita joaten ziren emakumeak plazara, baina gerora aldaketak eman ziren eta bertze arropa batzuk erabiltzen hasi ziren. Errioxan festa eta dantza gizarte egoera berrietara egokitzeak, emakumearentzat aurrera pauso handia ekarri du beraien beharrak azaleratzeko orduan. Dantzan, esaterako, elkarbanatutako espazio bat dute gizon eta emakumeek, non dantza errebindikazio marko bat bilakatzen den.

## 8.- ONDORIOA

Lanean zehar aztertutako autore guztien idatzietan emakumearen irudiak sortzen duen polemikaren berri izan dugu. Jarrera honetan harreman botere argia eta rolen banaketa erabat hierarkikoa dela ikusten da, non kasu gehienetan gizonak duen ahalmena emakumeak noiz parte hartu ahal duen esateko. Emakumea begira egotea eta gizona parte hartzailea “aktiboa” izatea gauza normaltzat ikusten da dantzetan eta baita bizitzako beste hainbat esparrutan ere. Iztueta-erengan, adibidez, ikusi ahal izan dugu gizona gizonetzkoak aukeratzen zuela zein emakume izanen zen haren bikotea dantza egiteko orduan. Horrek

---

<sup>5</sup> Quijera, A. “Pautas culturales y dinámica social en el Alto Ebro: la danza tradicional en la Rioja” in Fernandez de Larrinoa, K. (Arg.) (1998) *Fronteras y puentes culturales: Danza tradicional e identidad social*, Pamiela, Iruñea (325-438)

maila baxuago batean kokatzen ditu emakumezkoak eta zer esanik ez, emakumearen erantzuna nahitaez baiezkoa izan behar zela esatean.

Euskal Herriko hainbat herritan neskenak soilik diren dantzak eta, alderantziz, mutilenak soilik diren dantzak ditugu. Ikusirik genero ikuspuntu honek lurralde zabal eta handi batean duen jarraipena, esanen nuke Elizak guzti honetan zerikusi handia duela eta faktore bezala nahita ez aipatu beharrekoa dela. Hala ere, Elizaren barruan ikuspuntu ezberdinak daudela konturatzeko aukera izan dugu, Mendiburu eta Larramendi esker. Garai bereko bi elizgizon, jesuita, baina eramandako bizitza ezberdinarengatik edo dena delakoagatik oso iritzi ezberdinekoak dantzari zegokionez. Lehenengo puntuan aipatu dudan moduan, baliteke Larramendik kanpoan eta Gortean lanean pasa zituen urte haietan ikusitakoak eragina izan ahal izatea gizartearekiko eta emakume-gizon harremanekiko zuen ikusmoldean. Ikusitako gainontzeko autore gehienak, Iztueta izan ezik, Mendibururen kastakoak direla esan dezakegu. Jaietako dantza errituak boterearen errepresentazio unek ziren eta haietatik kanpo uzten zituzten emakumezkoak, baita irudikapen erritualetatik kanpo ere. Emakumea plazaren inguruan gizonak nola dantzatzen zuten begira jartzen zituzten momentutik, objektutzat jotzen dituzte. Guzti honek gatazka handia sortu du, momentu batzuetan dantzaren giro onean eragin duelarik, mutildantzen atalean aipatu dudan moduan. Errituetatik eta ohituretatik kanpo uzteak emakumearekiko nolabaiteko emakumearen aurkako indarkeria<sup>6</sup> erakusten du. Genero indarkeriaren inguruan sailkapen batzuk aipatzen ditu Lasartek (2012), horien artean eremu publiko eta intimoen artean egindako bereizketa dugularik; tratu txar fisikoak edo emozionalak diren ikusiz, maiztasunari begira, etab. Bosch eta Ferrerek (2002) diote indarkeria honek natural bilakatzen duela giza desberdintasuna bultzatzen duen ariketa oro eta hortaz, oso zaila dela guzti hori gelditzea.

Dantzarien arropari dagokionez ere, mugak eta zailtasunak egon dira hasieratik. Errioxako kasu hartan ikusi dugu hasiera batean mutil jantzia erabiltzen zutela emakumezkoek eta gerora haiei egokituagoak zeuden modeloak sortzen hasi zirela. Honen harira, interesgarria deritzot Oier Araolazak (2015) Berria egunkarirako egindako elkarrizketa batean esandakoa. Mutilek erabiltzen zuten jantzia ez omen zen berez gizonetzkoena, dantzari jantzia baizik, baina emakumeari egin zitzaion bazterkeriaren

---

<sup>6</sup> "Sarritan erabiltzen den beste kontzeptu bat emakumeen kontrako indarkeria da. Kontzeptu horrek interesgarria du objektua zehaztua duela, ez ordea subjektua edo indarkeriaren xedea (sexista, lapurreta edo bestelakoa). Kontzeptu hauek guztiak eremu batean baino gehiagotan erabil ditzakegu." "Gorputz jipoituak, genero indarkeriaren sinekdokea literaturan" in *Gorputza eta generoa: euskal kulturaren eta literaturan*, (2012) Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpean Zerbitzua, Leioa.

eraginez, jantziak mutilen arroparen genero marka hartu zuen. Guzti hau XX. mendean eman zen, poxpolin jantzia asmatu zenean emakumeek eraman ez zezaten. Araolazaren esanetan, bereizketa hori ardatza da eta genero markarik gabeko jantziak egiten saiatu izan diren arren, saiakerak ez ditu bere fruituak eman. Duela hilabete gutxi, adibidez, emakumezkoek lehen aldiz parte hartu zuten Zumarragako ezpata dantzan. Ordura arte, Zumarragako Santa Isabelgo jaietan, uztailaren 2an, Antiguako ermitan mutilek bakarrik dantzatzen zuten eta aurtengoetan neskek ere parte hartu dute, taldea 7 neska eta 7 mutil dantzarik osatzen zutelarik. Dantzari haietako batek Berria egunkariko elkarrizketa batean zioen moduan, dantzak ez du generorik eta denek dute eskubidea ezpata dantzan aritzeko. Askotan bezala, jantziak gizonezkoentzat bakarrik prestatuak zeuden eta aldaketa batzuk egin zituzten arropa hauek bi sexuetara egokitzeko eta aurrerantzean denek erabili ahal izateko.

Hasieran aipatu ditudan autoreen garaitik ondotik aipatu ditudan egoeretaraino (maskarada, mutildantzak,...) ez da bakarrik denbora jauzi bat eman, baita ikuspegi moral aldaketa bat ere, nahiz eta oraindik bide luzea geratzen den emakumeak plazan normaltasunez dantzan ikusteko. Haien testigantzetan so egiten badugu, soilik emakumeak aipatzen zituztela ikusi ahal izan dugu, inork ez baitzuen gizonen kastitateaz hitz egiten. Emakumeak ziren gizonen batzarretara lotsagabeki eta bekatu gosez joaten zirenak. Hau ikusirik, esanen nuke arauak apurtzeko edo bekatu egiteko orduan norbait epaitzekotan, emakumea zela hura. Emakumea zen oreka apurtzen zuena, deabruaren soldaduak zitekeenak eta gizonen kristautasun baloreak jokoan ipintzen zituztenak plazatik kanpoko dantza intimo eta zikin haietan. Emakumea gizonaren eremuan sartu zen, ohiturak apurtu eta festan lekua egin nahian. Tradizio hura apurtzen saiatzen ari dira gaur egun ere emakume eta gizon asko. Araolazak (2015) dioen moduan, ikusmolde zurrinak deseraiki egin behar dira, emakumeak baztertzeko sortuak izan zirelako. Maskaradetan haien txokoa egitea lortu dutela ikusi dugu eta mota honetako gertaerek tradizioak garai berrietara egokitzea posible dela erakusten dute.

Guzti hau ikusirik, Araolazak tradizioaren inguruan hitz egitean esandakoa luzatu nahiko nuke lan honetan: “Irun eta Hondarribiko [Gipuzkoa] kasuetan ikusi da gatazkak berak alardeen osasuna sendotu egin duela. Sutara egurra botatzea bezala da. Tradizioak hiltzen dira inori axola ez zaizkionean.”

## 9.- BIBLIOGRAFIA

- Altuna, P. (1982), *Aita Sebastian Mendibururen idazlan argitaragabeak*, II. Tomoa, Ediciones mensajero, Bilbo.
- Alvarez A. & Lasarte G. (Arg.) (2012), *Gorputza eta generoa: euskal kulturaren eta literaturaren*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpean Zerbitzua, Leioa.
- Aranburu, P.J. et al. (1995), *Jose Ignazio Gerricko Enatarriaga (1740-1824) eta bere Cristau Doctrina guztiaren esplicacionen sayaquera (1858)*, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz.
- Arejita, A. (1994), *Cristau eracaste euscalduna : irugarren zati edo parte, Jangoicoaren legue, ta Eleizaco mandamentuen gañea* (edizio kritikoa), Labayru Ikastegia, Bilbo.
- Artiñano, A. (1985), *El Señorío de Bizcaya*, Amigos del Libro Vasco, Etxebarri.
- Bidador, J. (2005), *Dantzaren erreforma Euskal herrian*, Bilboko Udala, Kultura eta Euskara saila, Bilbo.
- Bosch, E. & Ferrer, V. (2002), *La voz de las invisibles. Las víctimas de un mal amor que mata*. Cátedra, Madril.
- Bullen, Margaret & Egido, José Antonio (2003), *Tristes espectáculos: las mujeres y los Alardes de Irun y Hondarribia*. UPV-EHU, Bilbo.
- Fernandez de Larrinoa , K. (1997) *Mujer, ritual y fiesta*, Pamiela, Iruñea.  
\_\_\_\_\_ (Arg.) (1998) *Fronteras y puentes culturales: Danza tradicional e identidad social*, Pamiela, Iruñea.
- Iztueta, J.I. (1990), *Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira edo historia*, Euskal Editoreen elkarte, Donostia.
- Larralde, Xabier & Larralde, Patxi (1991), *Baztango Folklore 1*, Grafias Logroño, Bilbo.
- Mogel, J.A. (1800), *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac edo cembat gauzac lagundu bear dien confesio ta comunioari ondo eguiñac izaiteco*, Ezquerreren Alargunaren Etxean, Iruñea.
- Mogel, J.J. (1991), *Baserritaar jakitunaren etxeko eskolia*, Euskal Editoreen Elkarte, Donostia.

- Mujika, L.M. (1986), *Euskal-Errijetako olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba* (edizio kritikoa) Euskaltzaindia, Bilbo.
- Tellechea Idigoras, J.I. (1969), *Corografía o Descripción general de la muy Noble y muy Leal provincia de Guipúzcoa* (edizio kritikoa), Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia.
- \_\_\_\_\_ (1990), *Escritos Breves: obras del Padre Larramendi*, Argitalpen eta publikapenen gipuzkoar erakundea, Donostia
- Txillardeggi (1984), *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Elkar, Donostia.
- Urkizu, Patri & Otaegi, Lourdes, “Maskarada” in *Literatura Terminoen Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo.

Aldizkari eta egunkarietako artikuluak:

- Akesolo, L. (1981), “Juan Jose Mogel-en euskal-lanak” in *Euskera XXVI* ,671-681.
- Angiozar, M. (1930), “Decretos de las Juntas Generales de Guipúzcoa” , *Txistulari XV*.
- Araolaza, O. (2025/02/25), “Gatazkek tradizioa biziberritu dezakete” in *Berria*. [ [http://www.berria.eus/paperekoa/1845/040/001/2015-02-25/gatazkek\\_tradizioa\\_biziberritu\\_dezakete.htm](http://www.berria.eus/paperekoa/1845/040/001/2015-02-25/gatazkek_tradizioa_biziberritu_dezakete.htm) ] (azken kontsulta: 2015/07/12)
- “Neskek lehen aldiz parte hartu dute Zumarragako ezpata dantzari” (2015/07/02) in *Berria*. [ [http://www.berria.eus/albisteak/112554/neskek\\_lehen\\_aldiz\\_parte\\_hartu\\_dute\\_zumarragako\\_ezpata\\_dantzari.htm](http://www.berria.eus/albisteak/112554/neskek_lehen_aldiz_parte_hartu_dute_zumarragako_ezpata_dantzari.htm) ] (azken kontsulta: 2015/07/12)
- “El baile” (1898/02/08) in *La Avalancha*, 70.zbk. 18-19.